

Aurkezpen eta kokapen galderak

orotara 40' (10' x 4)


Zigor Ibarzabal. Ikastolen Elkartea.
Zigor Euskal Herriko Ikastolen elkartetik dator, Hezkuntza arduraduna baita bertan.

Euskara, euskal-kultur transmisioa eta euskaldun izateari begirako erronka zeukan herri baten beharrari erantzuteko jaio zinetela erran izan duzu inoiz. Gaurko misioen artean, aurreko horiei jendarte justuago, solidarioago, eraikitzaileago eta ekintzaileago baten aldeko lana gehitzen dizkiozu gainera.
Zuenean nazio mailako, mugaz gaindiko, erakundea izateak eta autoeraketak berebiziko garrantzia daukate gaurko saioko interesguneetatik begiratuta, hor ikasgai interesgarri bat bada herri honi emateko gure ustez. **Nola da, labur azalduta, zuen mugaz gaindiko antolaketa hori? Zein oztopo zein abantaila ditu?**

Anjeles Iztueta. UEU-Eusko Ikaskuntza.
2001-2005 legegintzaldian Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua izandakoa, Emakunden eta Eustaten aritutakoa, gaur egun Innobasqueko Zuzendaritza Batzordeko kidea, Eusko Ikaskuntzako Arabako lehendakariordea izandakoa (8 urte) eta 2021az geroztik Udako Euskal Unibertsitateko Talde Exekutiboko kidea da.

3 eta 6 urte bitartean, frankismo garaiko ikastola aitzindari horietako batean, ikasi zuen leitzen, biderkatzen, zatiketak egiten. Baserri giroan, aldiz, sorginen ipuinak, istorio zaharrak eta artoa aletzen, besteak beste. Oraingo honetan, alta, Udako Euskal Unibertsitateko zure esperientziari helduko diogu, dena egiteko egonik eta legea zuen alde ez behintzat, ikastaro, tailer eta mintegietako Iruñeko hamabostaldi horien ildotik. Izan ere, uste dugu badela hor helduleku aproposa gaur hona ekarri gaituen gaiari lotuta. **Zeren gainetik, zeren azpitik, norekin, nola egiten da Euskal Herria kontuan hartuko duen hezkuntza egitura bat ? Orduko esperientzia azaltzerik bazeniguke.**

Cynthia Lamothe. ESTIA (Industria teknologia Aurreratuen Goi Eskola) Fundazioko zuzendaria.
6 urtez aritu da Deloitte Consulting-erako aholkularitza lanetan, eta bertan, Europan eta mundu osoan, Enpresa Baliabideak Planifikatzeko Sistemak ezarri zituen, besteak beste, General Motors, Bayer eta Bombardier bezalako enpresetan. Ondoren, industrian sartu zen, Bombardier Rolling Stocksen, proiektuen kudeatzaile gisa. 8 urte eman zituen Bombardierren, non Aldaketen Kudeaketan espezializatu zen eta gero, Lean Manufacturing-en, Giza Baliabideetara igaro aurretik, Europako Talentuen Zuzendari gisa. Ondoren, ESTIA Fundazioko zuzendari gisa sartu zen ESTIAn, eta gaur egun aktiboki parte hartzen du ESTIA-TECHren garapenean, berrikuntza eta transferentzia jarduerak kudeatuz. FlexTech negozio-kudeatzailea da: gizakia ardatz duen diseinuan eta sormenean, elkarlaneko lanean, ingeniaritza kognitiboan eta kudeaketan, konplexutasunaren azterketan... besteak beste.
ESTIA besteak beste hezkuntzan aritzen dira, gazteen formakuntzan. Gainera enpresa munduarekin lankidetza estua dute praktikak eta berrikuntza proiektuak tarteko.
Nolakoa da ESTIAren mugaz gaindiko lana? Zein oztopo zein abantaila ditu?



EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

Itziar Azkue. UPV/EHU.
Ekonomia eta Enpresa Zientziatan Lizentziatua (1992) eta Doktorea (2012). Finantza Ekonomia saileko irakaslea 1993 geroztik, bai Diplomaturan, bai Lizentziaturan, bai Graduan eta Graduondokoan (Kontuen Auditoria eta Goi mailako Kontabilitate masterra). Kirolaren Kudeaketa masterreko batzordekide akademikoa 2018tik. Irakaskuntza Guneko Dekanordea (1996-1999). Praktika, Enpresa Harremanen eta Euskararen arloko Dekanordea Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean 2014tik. EAZ Graduan ibilbide dualeko koordinatzailea 2017tik. UPV/EHUko Euskara Batzordekidea (2017-2019).

EHUko Uda Ikastaroen Zuzendariorde Akademikoa dugu Itziar Azkue. UIK-en mugarteko uda ikastaroen proiektuarekin, mugaz gaindiko lanean dagoeneko ari zaretenez, ikastolei luzatutako galdera bera eginen dizugu: **Nola da, labur azalduta, zuen mugaz gaindiko antolaketa hori? Zein oztopo zein abantaila ditu?**

Galdemodu orokorra zeharka denekin lantzeko

orotara 32', solas ireki gisara planteatua, hurrenkera zehatzik gabe eta mahaiko partaideen artean elkarrizketa sustatuz.


Kontuan hartuta mahainguru honen gai nagusia hezkuntzaren inguruan EHn daukagun egituratze mailaren, aukeren eta balizko abiapuntuen inguruan dihardueIa, labur erantzuteko bada ere, zuen ustez,
Non leudeke aukera berriak? Non pausatu beharko genuke abiapuntua edo oinarria?

Itxiera

orotara 10' (2,5' x 4)

Titular bat edota azalpen motza eman puntua edo gaia hauxe izanik:

Mugaz gaindi eta euskal eremu administratibo ezberdinetan kokatzen den hezkuntza ingurune zabal horri dagokionean (nire esparruan/EHn/Eusko Ikaskuntzan/nire erakundean) aitzinera begirako epe hurbileko erronka izan daiteke...



13:30 Etenaldia

14:30 Goizeko saioaren sintesia. Arratsaldeko saioaren aurkezpena


Hur Gorostiaga Barriola/ Seaskako zuzendaria eta Euskal Konfederazioko kidea.
Nora SalbotxAlegria/Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza proiektu kozuzendaria.

14:45-16:00 Mahai-ingurua: Mugaz gaindiko lankidetza eta lurralde kohesioa. Euskal Herri mailako hezkuntza egitura(k): zer egituratze maila daukagu? Zer egin genezake? Nondik abiatu?

Zigor Ibarzabal/ Ikastolen Elkartea.
Anjeles Iztueta/UEU-Eusko Ikaskuntza.
Cynthia Lamothe / ESTIA.
Itziar Azkue/ UPV/EHU.
Gidaritza: **Ainhoa Azpirotz**/ HIK HASI.

Mahai inguruaren kokapena 2'

Azken hamarkadetan irudi luke hezkuntza amaierarik gabeko krisi batean murgilduta legokeela, etengabeko aldaketan, berrikuspenez berrikuspen. Askotan, hezkuntza sistemen berriztatze hauek testuinguru ekonomiko eta politiko globalaren eskaeretatik edota estatu-mailan hezkuntzari eman ohi zaion trataera alderdikoiaren eratorriak diren heinean, konnotazio negatiboak egozten dizkiogu. Arrunta zaigu hezkuntza komunitatea osatzen duten kideen aldetik (ikasle, guraso, langile) bai eta hezkuntza aferen inguruko framing-a edo errelatoa egiten duten agente nagusien aldetik ere, hezkuntzari zuzendutako kritika zorrotzak aditzea eta irakurtzea. Hezkuntza sistema, batzuen aburuz, norbaitzuk eta nonbait bilatuta, nolabaiteko etengabeko ziurgabetasun egoeran kokatuko litzateke beraz marko globalean.
Honek, bistan denez, ez du berez zergatik ekarri beharrik "krisi" hitzaren bueltako ulerkera ezkorrik. Edo, ez al gara gaur ere akaso "krisi", su, txiki bat pizten ari? Hemen eta orain, euskal hezkuntza sistema 3 administrazio desberdinen baitan antolatzen den honetan, beraz sistema bat eta bakarra ez dagoenean, euskal herritarroi dagokigu batasuna azkartuko duten bideak bilatzea eta ez daudenean hauek zabaltzeko modua aurkitzea. Lankidetzarako tresnak sortzea, euskal curriculuma adibidez, izan daiteke, bistan denez, kohesioaren bilaketan urrats garrantzitsuenetako bat. Gaurko mahainguruko gaia horixe izan dadin nahiko genuke. Goazen bada krisi berriak sortzera, gureak hain zuzen ere:
Mugaz gaindiko lankidetza eta lurralde kohesioarena. Euskal Herri mailako hezkuntza egitura(k): zer egituratze maila daukagu? Zer egin genezake? Nondik abiatu?



HEZKUNTZA ETORKIZUNEKO JENDARTEA KOHESIONATZEKO TRESNA: EUSKAL CURRICULUMAREN BER-IRUDIKATZEA

MAHAI-INGURUA

Cité des Arts. Baiona

2023/07/19

Egitaraua

9:00 Erregistroa

9:15 Ikastaroaren irekiera

Beatriz Akizu/Eusko Ikaskuntza

Hur Gorostiaga/Seaskako zuzendaria eta Euskal Konfederazioko kidea

9:30 Euskal Curriculumaren ibilbide historikoa

Lore Erriondo/EHU Pedagogian doktorea

10:00 Euskal curriculumaren ber-kontzeptualizazioa: gaurko Euskal Herriaren kohesiorako eta biziberritzeko tresna

Nora Salbotx Alegria/ Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza proiektuko zuzendaria.

10:30 Galderak eta solasa
Gidaritza: **Hur Gorostiaga Barriola** / Seaskako zuzendaria eta Euskal Konfederazioko kidea.

10:45 Etenaldia

11:15 Hizkuntza gutxituak eta hezkuntza eleanitza. Euskara Euskal Herriko kohesio tresna?
Oihana Leonet/ UPV/EHU. Hezkuntza Zientzien Saila. DREAM (Donostia Research group on Education and Multilingualism).

11:45 Galderak eta solasa
Gidaritza: **Nora SalbotxAlegria**/Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza proiektuko zuzendaria.

12:00 Euskaraz sortzea pertsonaren eta herriaren garapen integralerako.
Gotzon Barandiaran/ Euskal idazle eta kulturgilea.

12:25 Euskal curriculumaren ber-kontzeptualizazioa: Nafarroaren begirada
Irene LópezGoñi/UPNA/NUP Pedagogian doktorea.

12:50 Euskal curriculumaren ber-kontzeptualizazioa: Iparraldearen begirada
Iban Thicoipe/ Bernat Etxepare lizeoko zuzendaria.

13:15 Galderak eta solasa
Gidaritza: **Nora Salbotx Alegria**/Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza proiektuko zuzendaria.